

# ZAINTZARA

# HURBILPEN BAT:

# METODOLOGIA

DENBORALIZAZIOA: 1H ETA 20 MINUTU

Metodologia honek kokapen politiko bat eta hiru ariketa proposatzen ditu.

Helburua eztabaida piztu eta zaintzaren problematikara lehen hurbilpen bat egitea da, beraz, metodologia hau talde bakoitzaren ezaugarrietara egokitzea ere ezinbestekoa izango da.



# SARRERA (20')

## KOKAPEN POLITIKOA (10')

Metodologia honen helburua zaintza lanen inguruko ulerkeran sakondu eta hau problematizatzea izango da. Mugimendu Feministak Greba Orokor Feministarako deia egin du aurten-go udazkenerako, eta guk, Neska\* Gazte gisa, bertan ekarpen garrantzitsua egingo dugula badakigu. Baina horretarako baliabide edo euskarri teorikoagoak ere ezinbestekoak zaizkigu, gure buruak zaintzaren problematikan kokatu eta gure ingurua mobilizatzen hasteko. Greba Orokor Feminista baterantz baldin bagoaz nahitaezkoa izango da gure inguruko espazioetan gaia sozializatzen eta problematizatzen hastea eta etxeak, ikastetxeak, unibertsitateak, lantokiak... mobilizatzea: denok, denon bizitzak erdigunean jartzeko, Greba Orokor Feministara batu gaitezten.

Horretara bidean Baterajotzea mugarri garrantzitsu bat izango da, ezinbestekoa zaigulako Neska\* Gazte gisa ekarpenak nondik egingo ditugun erabakitzea: gure artean eztabaidatu behar dugu estrategia zehatzak diseinatu eta borrokarako tresnak sortzeko. Horregatik uste dugu metodologia hau erabilgarria izan daitekeela herrietan, Baterajotzearen aurretik gaiaren inguruko lehen hurbilpen bat egin ahal izateko. Ahaldunderako balioko digun ariketa kolektibo gisa ere planteatzen dugu, jakintza partekatua baita eta elkarrekin eraikitzen baitugu: prozesu hau kolektiboa da eta denon ahotsak jaso behar ditu.

Zaintza hitz zabala da, adiera pila bat sartzen dira bertan, eta batzuetan zabalegia denaren sentsazioa ere izaten dugu, zaintza esan eta zertaz ari garen ondo ez dakigula pentsatzeraino. Zaintza Mugimendu Feministaren ardatz garrantzitsuenetako bat izan da garai eta testuinguru ezberdinetan, izan ere, zaintzaz ari garenean, askotan emakumeek, emakume izate hutsagatik, trukean ezer jaso gabe (dohainik) eta aitortzarik gabe egindako lanaz ari gara; eta sarri, etxearen eta familia nuklearraren testuinguruan antolatzen diren lanak dira hauek. Izan ere, nazioarte mailan trukean ezer jaso gabe egiten diren zaintza lanen %75 baino gehiago emakumeek egindakoak direla estimatzen da eta, Euskal Herrian ere, banaketa dispareko hau mantentzen eta erreproduzitzen da. Horrek ondorio zehatzak eta zuzenak dauzka, emakumeok zaintza lanetan pasatako denbora enpleguan, militantzian, denbora librean, formakutzan eta, orokorrean, boterea eskuratzeko beste esparru batzuetan pasa ezin dugun denbora baita.

Horrez gain, azken hamarkadetan, zaintza lan batzuk merkaturatu ahala, lan prekarietatearen aurpegirik gordinena ere ikusi ahal izan dugu. Migrazio politikek eta arrazakeria estrukturalak nahiz lan merkatu arrazista eta patriarkal baten errotzeak, emakumeak, eta gero eta gehiago emakume migratu eta arrazializatuak, egoera prekarizatuenetan zaintza lanak egitera behartzen ditu.

Honek guztiak neska\* gazteongan ere badu errotze konkretu bat: haurrak zaintzeko, klase partikularrak emateko edota begirale izateko lanetan aritzen gara sarri, gure klase sozioekonomiko berbereko gizonak ez bezala; baldintza prekarioetan, orduka lanean, haurren gurasoen nahi eta desirerara gure lana moldatuz, kontraturik gabe, azken orduko ordutegi aldaketekin eta abar luze bat.

Zaintza bizitzak eusteko ezinbesteko lana da, gure bizi osoan zehar modu batean edo bestean behar duguna, nahiz eta une batzuetan (bizitzaren hasieran, amaieran eta gaixorik gaudenetan) intentsitate handiagoz beharko dugun. Horrek aditzera ematen digu zaintzak gure gizarte antolaketaren esparru guztietan duela eragina, eta, beraz, zaintza lanak, emakumeek ordainik jaso gabe egindako lan horiek, jo puntuan jartzeak sistema osoa inpugnatzeko potentzialtasuna duela. Horregatik, guk, zaintza lanak banatzeko, profesionalizatu beharrekoak era duinean profesionalizatzeko eta lan horien gaineko erabaki gaitasun kolektiboa izateko aldarrikapean egiten dugu. Denontzako eskubide izango bada, denon ardura behar duelako, eta guk, Neska\* Gazte gisa, ez ditugulako sistema zisheteropatriarkalak ezartzen dizkigun behartutako zaintza lanak baldintza horretan egiten jarraituko. Utopia berriak sortu nahi ditugu, zaharrak desegin eta gureak indartu. Horretara goaz Baterajotzera, utopia horiek imaginatzen eta eraikitzen hastera, eta horregatik goaz grebara ere, utopia horiek borroka konkretuetan lurreratzera.

## **METODOLOGIAREN ETA HELBURUEN AZALPENA (5')**

Metodologia hiru ariketetan banatuta dago eta bakoitzak helburu ezberdinak ditu (ariketa hasi baino lehen azalduko ditugunak). Dena den, ondorengoak dira helburu orokorrak:

- Neska\* gazte subjektu bezala zaintzak nola zeharkatzen gaituen identifikatzea.
- Neska\* gazte gisa, Greba Orokor Feministara zergatik joan behar garen identifikatzea.
- Etorkizun feminista bat irudikatzea

## KIDEEN AURKEZPENA (5')

**Helburua:** ezagutza dinamika.

**Materiala:** “eguraldiaren” irudiak (3: eguzkia, hodeia eta eguzkia eta trumoiak).

**Ariketaren azalpena:** Irudiak lurrian banatuta jarriko ditugu eta bakoitza, sentitzen duenaren arabera, irudi baten edo beste baten gainean jarriko da. Ondoren, bakoitzak bere izena esango du eta, nahi izanez gero, dagoen tokian zergatik jarri den partekatuko du besteekin.

## LEHENENGO ARIKETA (20')

**Helburua:** zaintza lanak eremuka problematizatzea.

**Materiala:** post-itak.

**Ariketaren azalpena:** eremu ezberdinetan zaintza lanak nola banatzen eta zein baldintzetan egiten diren aztertuko dugu. Horretarako, galdera lagungarriak izango ditugu (galdera hauek lau eremuetarako balio dute). 10 minutu hartuko ditugu bakarka pentsatzeko eta, ondoren, plenarioan (10') partekatuko ditugu hausnarketak.

## Eremuak:

- Lantokietan eta ikastokietan.
- Familian.
- Bikoteetan.
- Lagunartean.

## Galderak:

- Nor eta noiz zaintzen dut?
- Nortzuek eta noiz zaintzen naute?
- Zer baldintzatan ematen dira zaintza lan horiek?
- Zeintzuk dira identifikatzen ditugun hutsune eta gatazkak?

# BIGARREN ARIKETA (20')

**Helburua:** Neska\* gazte gisa, grebara joateko arrazoien identifikazioa.

**Materiala:** Kartulinak

**Ariketaren azalpena:** Taldeka jarriko gara eta Greba Orokor Feministara joateko arrazoiak zerrendatuko ditugu (10'). Aurreko ariketan atera diren hausnarketez baliatu gaitezke.

**\*Dinamizatzaileentzako oharra:** ariketa momenturen batean ataskatzen bada, hitz/ideia/galdera lagungarriak botako ditugu, taldearen ezaugarrien arabera eta aurreko ariketan atera diren ondorioen arabera.

Behin taldeka argudioak zerrendatuta, bi taldeen arteko txapelketa egongo da: plenarioan dinamizatzaileei argudioak aurkeztuko dizkiegu eta hauek konbentzitzea izango litzateke helburua (10'). Talde irabazlea zein den, beraz, dinamizatzaileek esango dute.

# HIRUGARREN ARIKETA (20')

Helburua: etorkizun feminista irudikatzea

Materiala: kartulinak.

Ariketaren azalpena: 3 pertsonako taldeetan jarriko gara eta utopia feminista bat MARRAZTU edo DESKRIBATUKO dugu (talde bakoitzak nahiago duena) (10') . Ondoren, plenarioan aurkeztuko du talde bakoitzak berea, denok batera etorkizun amankomun bat irudikatzeko (10').

Marrazkiak/deskribapenak egiteko hitz lagungarriak daude: nola irudikatzen dugu kontzeptu hauek gure utopietan?

- Harremanak
- Generoa
- Familia
- Lana
- Etxeak (nor biziko da...)

